

TXIKITTO



***“Martintxo” rekin
berbetan***

● Urtarrilaren 28an **La Salleko 2.** eta **3.** mailako ikasleek Amañako zine aretoan 'Muxina' filma ikusi zuten. Diotenez, denen gustukoa izan zen. Bestalde, orain dela aste batzuk Pakearen Astea ospatu zuten La Sallekoek euren ikastetxean. Asteaz gero ikasleek mailakako ekintza ugari burutu zituzten. Eguzi arratsaldean, astea biribiltzeko, denek elkarrekin ekitaldi berezi bat ospatu zuten.



● Oraingoa ekintzaz betetako garaia izan dugu **Arrateko Andra Mari** eskolan. Aratosteak ospatu ditugu, eskola zine bihurtu genuen eta gu pelikuletako pertsonaia izan ginen. Santa Ageda ere gogoan izan genuen eta eskolako guztiak Santa eskean ibili ginen auzoan zehar. Amañako zinean ere izan ginen Aratoste aurretik, San Andres eskolan antzerki emanaldia ikusi genuen eta pianojolea eskolan izan dugu. Orain lasaitasun piska bat, aurrera gogoz jarraitzeko eta beste lan batzuk prestatzeko.

● Urtarrilaren 31an, "Eguzi Zuri" ospatu genuen. **Urkizu** eskola zirkularra erraldoi batean bihurtu zen. Txundituta utzi genituen ikusle guztiak. Otsailaren 7an, Urkizuko 1., 2., 3. eta 4. mailakoek, Xabier Lizaso pianojolearen bisita jaso zuten. Zelako une politak pasa zituzten haren musika entzun eta jolasak egiten! Otsailaren 11an, Urkizuko 6. mailakoak Elgoibarko kiroldetara joan ziren eskalatzera. Ai! ... hobe egunero matematika ordez eskalada balego..



● **Aldatze** ikastetxekoek duten helburuekin jarraituz, 'ikasle-ikaskide-hitar konprometitu eta erantzule izateko hezi', eta garizuma garaia hausnarketa garaia dela kontuan izanda, Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoko ikasleekin saioak antolatu dituzte. Horrela, Lehen Hezkuntzako (2. eta 3. ziklokoek) eta DBHkoek (1. ziklokoek) gela barruko jarduerak burutuko dituzte. Bestetik, DBH (2. ziklokoak) eta Batxilergoak jolasorduetan bildu eta hainbat abesti-laburmetrai landuko dituzte.

● **EBPN** programaren barruan, joan den hiru hilabetean 'Maria' eta 'Kainete' jolasak landu ostean, hiru hilabete honetan 'Txakur bat erosi dut' eta 'Karabin karaban begiratzera noa' jolasak hartuko dute txanda. Jolas hauek Haur Hezkuntzako 3. mailako, eta lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako umeei landuko dituzte. Hala ere, ikastetxeez gain, gurasoek ere jasoko dituzte jolasen azalpenak, horrela, euren seme-alabekin jolastu ahal izateko. Ekimen honen helburua umeei lagunekin eta gurasoekin euskaraz aritzeko ohitura bultzatzea da.


● Otsailaren 9an **Zapatuetako Tailerrek** atea ireki zituzten berriz ere. Haur Hezkuntzako 3. mailakoek eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoek antzerki tailerlean (16.30etatik 18.00etara) parte hartzeko aukera dute, eta 11 bikotek eman dute izena bertan. Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoak, berriz, dantza tailerlean (16.30etatik 18.00etara) ibiliko dira eta 20 lagunek eman dute izena. 6. eta 5. mailakoek, bestalde, zientzia esperimenduak (3 talde 16.00etatik 17.30etara eta beste hirurek 17.30etatik 19.00etara) egiteko aukera izango dute eta tailer honen arrakasta izugarria izan da, 105 lagunek eman baitute izena. Tailer honetan 6 talde egin dira.




zu margolari



ARRATSALDEAKO JOLASAK BE ONDO PASATZEKO AUKERA IZATEN DIRA, EZTA? MARGOTU UME HAU...




Bilatuz sagua gazta hartzeko bidea.




Marina Apeirribai.

Inene Astaburuga



1) Gonia 3) txuria 5) Lanaraya
2) Urdina 4) Honia 6) Berdea.

Margotu mazaikia kodearen anabera.



Nom daude?

LEIRE GANADO

Bilatu zazpi animalien izenak.

B	Z	N	T	T	X	A	K	U	R	R	A	P	A	S
K	A	I	R	O	X	T	U	U	O	I	G	E	X	N
K	U	G	K	B	M	Z	S	Z	I	J	G	Z	A	T
S	H	A	Z	A	R	A	X	A	K	U	R	O	X	D
A	Z	Z	P	R	U	R	A	L	S	T	Q	M	U	A
R	E	P	X	T	F	R	L	N	J	I	X	E	D	F
R	Z	U	A	O	I	A	E	I	O	I	I	Q	O	A
A	M	K	T	L	P	K	G	K	M	U	A	Z	E	T
B	E	S	H	O	H	I	I	O	X	Z	B	L	X	S
P	Z	A	L	D	I	A	B	X	K	B	R	I	T	O

txakurra

kotua

txoria

zaldia

barnaskifoa

igela

oiloa

LEIRE GANADO

AKATSAK ZUZENTZEN

ZENBAT BIDER ESAN OTE DUTE
MAISU ETA ANDEREÑOEK
AKATSAK ERREPIKATZEN
DIRELA! ORAINGOAN ZENBAT
DAKIZUEN ERAKUSTEKO AUKERA
IZANGO DUZUE ETA, GAINERA,
SARI BAT JASO DEZAKEZUE.
ESALDI HAUETAKO BI TXARTO
DAUDE. PARTE HARTU
LEHIAKETAN ETA, ASMATUZ
GERO, SARIA IRABAZI
DEZAKEZUE!

HILABETEKO IRABAZLEA



MIREN LOITI



- Nik badakit sua nola egiten den.
- Espetxetik irten berri da.
- Ez dakit joango naizen. Zu basoaz?
- Kirolari aparta da Miren.
- Uda iristearekin zain nago.
- Hanka puskatu zaio Anderri.
- Gaixorik nagoela uste dut.
- Dantza ugari egin nuen Aratosteetako jaialdian.

Izena:

Telefono zenbakia:



Yraolagoitia
liburudenda

Bidebarrieta 20 943 20 16 17

Jaimito eskolan zegoen eta andereñoak esan zuen:
-Biharko esan behar didazue kolore bat eta kolore hori daukan gauza bat.

Jaimito etxera joan zen eta esan zion bere aitari:

-Aita, esan kolore bat eta kolore hori duen gauza bat.

-Urdina, urdina zerua -esan zion bere aitak Jaimitori.

Hurrengo egunean, Jaimito eskolara joan zen poz-pezik eta andereñoak bati esan zion gauza eta kolorea esateko eta esan zuen:

-Berdea, berdea hostoa.

Esan zuen beste batek:

-Horia, horia limoia.

Andereñoak esan zion mutiko beltz bati esateko, eta esan zuen:

-Urdina, urdina zerua.

Andereñoak Jaimitori esan zion esateko eta esan zuen:

-Beltza, beltza kaka.

Goizane Arriola

Ume batek besteari:

-Aizu, ba al dakizu zer den hipoteka?

-Ez dakit, galdetu Peiori.

-Peio ba al dakizu zer den hipoteka?

-Ez dakit, galdetu nire lehengusuari 4 urte ditu.

-Ba al dakizu zer den hipoteka?

-Bai hipopotamoentzako diskoteka.

Goizane Carretero



Ume bat eskolatik atera zen eta aitari ezan zion:

-Bi albiste dauzkat, bat ona eta bestea txarra.

-Ea, esan ona.

-Guztia probatu dudala.

-Eta zein da txarra.

-Zure aitonak kaka egin duela praketan.

Ane Herrero



Kotxeak esaten dio errepide bati :

- Ja, ja, nik zapaltzen zaitut.

- Baina nik ipurdia ikusten dizut!

Asmae Ourdi

Jaimito hegazkin batean zegoen. Kakalarria zeukan eta, komuna itxita zegoenez, leihotik egin zuen eta moja bati eman zion bere kakak.

Mojak esan zuen:

- Krabelin bat da?

- Ez, nire kaka da! - erantzun zion Jaimitok.

Leire Garate



Behin Jaimitoren andereñoak esan zuen:

-Jaimito, biharko biderketa taula ikasita ekarri behar duzu!

Geroago Jaimitok lagun batekin egin zuen topo eta lagunak biderketa taula kamisetaren etiketan idazteko esan zion.

Hurrengo egunean andereñoak galdetu zionean Jaimitori:

-Biderketa taulak ikasi dituzu?

-Bai -esan zuen Jaimitok.

- $1 \times 1 = 1$, $2 \times 2 = 4$, $3 \times 3 = 9$. . .

$100 \times 100 =$ kotoia.

Maria Calvo



PACO: -Ikusi, Jon hau bertso meta da, bertso asko agertzen dira.

JON:- Baina bertso meta ez da bertsoen limitea?

Iker del Pino

Moja konbentu batean...

-Gure artean gizon bat dago eta, nor den jakiteko, gonak altxatu eta bakoitzak bere izena esan beharko du.

-Sor Matilde!

-Sor Maria! -besteak

-Sor Luzia! - hurrengoak

Baina, azkenaren txanda iristean, honek, besteak bezala, gona altxatu eta esan du:

-Sor... presaaaaa!

Aitor Vivian

Jaimito aitonarekin zegoen eta esan zuen:

-Aitona, aitona, begira euro bat.

-Lurreko gauzak ez dira hartzen.

Orduan aitona banana batekin erori zen eta aitonak esan zuen:

-Jaimito, lagundu.


-Ez, esan didazu lurreko gauzak ez direla hartzen.

Yanire Maquieira



Munduko zein nazio da, lehenda-bizi barre egiten duena eta gero eztanda? JA-PON.

Iker



Emakume bat jatetxe batera sartu da bazkaltzeko asmotan:

-Zer duzue bazkaltzeko?

-Beno, hemen menu bi ditugu: bata 5 eurokoa eta bestea 7 eurokoa

-erantzuten dio zerbitzariak.

-Eta zein da ezberdintasuna?

-galdetzen du emakumeak.

-Jolin! Euro bikoa!

Alaitz

Bazen neska bat hain argala, oliba hezur bat irentsi zuela egun batean eta besteek haurdun zegoela pentsatu zuten.

Egun batean Jaimito parkean zebilen bizikleta batekin:

-Ama, begira, esku gabe!

-Ama, begiratu, hanka gabe!

-Ama, begira, esku eta hanka gabe!

-Ama, ama, begira, hortzik gabe!

Dragoi maltzurra

Bazen behin, Ipotxlandia izeneko irla oso txiki bat. Zuhaitz berdeak eta paisaia berdea zituen. Bertan, ipotxak eta dragoi bat bizi ziren. Ñimiñoen erregeak Anasagandalf zuen izena. Ile eta bibote beltz eta leunak zituen. Oso jatorra eta alaia zen. Bere alabak, Ermenejilda printzesak, ile hori oso leuna zeukan. Alaia, bihotz onekoa eta oso jatorra zen. Dragoiak Ermenejildo zuen izena. Maltzurra, eskertzarrekoa eta berdea zen. Munstroa kobazulo batean bizi zen. Hilean behin, Ermenejildo herrira joan, eta aurkitzen zuen guztia suntsitu eta aurkitutako ipotx guztiak jaten zituen.

Egun batean, Anasagandalf erregeak dragoia hil nahi zuen. Ermenejildo munstroa ez zegoen batere ados eta herria egunero suntsitzera joaten hasi zen. Erregea pentsakor gelditu zen eta azkenean dragoia konturatu gabe hiltzea bururatu zitzaion, baina ez zekien nola egin. Gau hartan, dragoia bere kobazulotik irten eta gaztelura abiatu zen. Ermenejilda bahitzera. Printzesa bahitzean, gaztelutik ziztu biziaren irten eta erregearen alaba bere kobazulora eramane zuten.



**Kobazulora iritsi bezain
laster, Ermenejildok zera
esan zion printzesari:**

**–Aizu printzesa. Nik ez dut
hau egiterik nahi, baina ez
badut egiten nire aitak hilko
nau.**

**Ermenejilda harrituta
geratu zen hau entzutean.
Orduan, Ermenejildok
arraultzak jarri eta lur
azpian gorde zituen inork ez
aurkitzeko moduan, lurrak
arraultza guztiak
inkubatzeko.**

**Azkenean, munstroak
itxaroten zegoen unea heldu
zen. Printze bat etorri zen
printzesa askatzera.**

**Altua, ilehoria eta oso
indartsua. Baina
gauzak ez ziren
joan dragoiak
pentsatu
bezala.**



**Printzesak dragoiaren lepoan
ezpata sartu zuen. ZAS!**

**Handik hilabete batera
Ermenejildoren kumeak jaio
ziren eta gaztelura abiatu
ziren. Bertan, printzesa
aurkitu eta jan egin zuten
mendekuz. Zoritxarrez,
hurrengo egunean,
Ermenejilda printzearekin
ezkondu behar zen.**

TAHA BENSARGHIN

TXIKI HOROSKOPOA

ARIES



Eguzkia, beroa eta zero urdina izan dugu azken egunotan, baina ez pentsa uda gertu dagoenik, elurrak heldu baitaiteke laister! Prestatu zaitetz hotza pasatzeko eta erosi eskularru berriak, horiek apurtuta dituzu-eta!



TAURUS

Kirolari eskasa bazara ere, lasai, mundua ez da kiroletan amaitzen! Hala ere, ez duzuna egin behar da kirola egiteari utzi, osasunerako ezinhobea baita eta etorkizunean zure gorputzak eskertuko du.



GEMINIS

Zergatik zara hain bihurria, Geminis maitea? Ez dago egunik trastakeriarik egin gabe pasatzen duzunik. Egunen batean zuk jasango dituzu besteen trastakeriak eta orduan ez duzu hainbeste barrerik egingo.



CANCER

Badakizu nora joango zaren Aste Santuan? Ez badakizu ere, lasai, oso ondo pasako baituzu. Herrian geratzen bazara, gertakizun harrigarri baten lekukoa izango zara. Beraz, ondo pasa!

LEO



Ordenagailua ederki maneiatzen duzu, baina ez duzu pentsatzen denbora gehiegi ematen duzula bere aurrean? Begiak gorri-gorri ipini arte egoten zara jolasten eta hori nahiko zaindu beharko zenuke!



VIRGO

Makal sentituko zara hurrengo egunotan, baina hilabetea aurrera joan heinean indarra hartu eta sasoi ederrean amaituko duzu. Amamarenean gehiago jan beharko zenuke. Zein gozoak diren bere babarrunak, ezta?

TXIKI HOROSKOPOA



Ikastolan denbora guztian berbetan eta jolasten ematen baduzu, ez kexatu andereñoak bronka botatzen badizu! Ondo pasatzea ezinbestekoa da, baina ikastolara ikastera ere joan behar da, ez soilik jolastera.



Astroak zure alde daude hilabete honetan. Edozer gauza egiten duzula, dena bikain aterako zaizu. Baina ez eskatu gauza gehiegirik ere; bestela, astroek zure albotik alde egin eta zorte txarra izango duzu.



Ezin duzu hainbeste gauza eskatu! Etxean eta etxetik kanpo dituzun gauza guztiak ondo baloratu beharko zenituzke, horiek lortzea ez baita batere erreza. Beraz, apalagoa izan eta besteekiko esker gehiago erakutsi.



Aste Santua heldu baino lehenago ezbehar bat jasango duzu eta, ondorioz, ezingo dituzu jai-egunak nahi bezala aprobetxatu ahal izango. Hala ere, denbora txarrari aurpegi ona ipini, esaten den bezala.



Kupidok ederki egin zuen bere lana San Balentin egunean eta orain bihotzak besterik ez dituzu buruan bueltaka. Maiteminduta egotea zoragarria da eta sentituko duzun poza ikaragarria izango da. Zorionak!



Hollywoodeko izarra izan nahi duzula? Talenturik ez zaizu falta, baina alfonbra gorrian pentsatzen hasi baino lehen, artista nola izan ikasi beharko zenuke. Dena behetik hasi beharra dago!

WWW.TOKLON.COM

Ikuskizun berri baten aurrean gaude: IPUIN-MUSIKALAK! Ipuinak ez dira haurrentzako bakarrik eta, horrela, adin desberdinetara egokitzen diren saioak daude. Denak gustura aritzen dira ikuskizun polit eta dibertigarri hauetan. Ikuskizun hauetan ikusleei parte hartzea eskaintzen die kontalariaiak. Ipuina eta musika tartekatzen dira, soinu giroa sortuz. Horretarako ahotsa, gorputza eta perkusiozko musika-tresna bitxi eta ikusgarriak erabiltzen dira. Musika-tresnak birziklatutako materialekin eginik daude. Ondo pasatzeko, musika apur bat egiteko eta, nola ez, euskara lantzeko aukera paregabea. Saioa bukatu ondoren ikusleek musika-tresnak aztertzeko eta galderak egiteko aukera dute. Era honetako musika-tresnak egiten ikasteko tailerren bat sortuko al da?



WWW.PROARABATIC.ORG/TESTU%5FTELEMATIKOAK

Proposamen ederra ekartzen digute Arabako hainbat ikastetxetako ikasleek webgune honetan: testu telematikoak. Haur Hezkuntzatik hasita Lehen Hezkuntzako 6. mailara arte, ipuinen inguruan hainbat ekintza ezberdin antolatu dituzte eta, orain, denon eskura daude. Nortzuk diren ikusi ahal



izango duzu, gela bakoitzaren argazkiarekin; eta zeintzuk diren jakinda, eurekin kontaktuan jarri zaitezke helbide elektronikoaren bitartez. Bestalde, maila bakoitzean egin dituzten lanen prozesu eta helburua zein izan den ikusi dezakezu. Interesa izanez gero, zuen laguntzarako izan daitezke pausu hauek. Prozesu guzti horren emaitzak diren lanak ere aurki daitezke. Baina gauza ez da hor bukatzen, webguneak ganbara bat baitauka. Bertan, argazki ezberdinak, bideoak, webguneak egiteko laguntza, txat-a, euren irteeretako berriak, loturak...

erreportajea



Koko-jantziak armairura berriro

Koloreak, zarata, dantzak. Aratosteek bere marka laga zuten herrian. Koko-jantzia eranstea beste mundu batean sartu ziren umeak. Pijamarekin lotara zihozenak, printzesak, euskal mitologiako pertsonaiak, super-heroiak. Fantasiatzko egunak bizi izan ziren Aratoste goiztiar hauetan.



L noiz baino lehenago iritsi ziren 2008ko Aratosteak eta inoiz baino gogotsuago hartu dituzte jai hauek Eibarko umeek. Alaitasuna izan zen nagusi kaleetan zehar egun hauetan eta nabari geratu zen hori 'Eguen zuri' egunean. Umeak izan ziren Aratosten hasiera markatzen duten egun horretako protagonistak eta era paregabean pasatu zuten eurek.

Kolorea eta bizitasuna izan ziren nagusi Aratosteetan. 'Eguen zuri' egunean, adibidez, zirko bi egon ziren herrian. Bata, Urkizukoa izan zen. Eskola honetakoek kalejira egin zuten Urkizun zehar eta kolorez bete zituzten auzoko kaleak.

Bestea, San Andres eskolan egon zen. Bertan, zirkoa osatzen zuten kide guztiak areto batean bildu eta ekitaldi batez gozatzeko aukera izan zuten.

Aldatze ikastetxean Batman, sagutxoak, printzesak eta beste hainbat kokojantzi ezberdin jantzi zituzten umeek. Jolasteko aukera izan zuten arratsalde osoan zehar eta maskara lehiaketa ere egin zuten.

Hollywoodeko glamourra bizi izan zen Arrateko Andra Mari ikastetxean. Filme ezberdinetako protagonistak bildu ziren bertan eta kalejira egin zuten Urkin zehar. Izar askotako kalejira, beraz.

Kalejiran

Esan dutenez pira-



tak maltzurrak ziren, baina ez zen inolako pertsona maltzurrik ikusi Amañan. Pirataz jantzita joan ziren eskola honetako umeak eta ez zen inolako abordajerik egon. Pirata guztiak, elkarrekin, Amaña osoan zehar kalejira egin zuten auzoko kaleak girotuz.

Eibarren, bestalde, ohikoak diren kalejira bi egon ziren. La Sallekoek herriko kaleetatik ibili ziren 'Amets goxoak' izenburupean. Pijamarekin jantzita eta panpinarekin eskuan, ohera joateko prest zeuden La Salleko umeak.

Juan Antonio Mogel ikastolakoek, bestetik, euskal aratosteetako koko-jantziak ipini zituzten soinean, ohikoa denez. Ikastolakoek

herriko kaleetan zehar kalejira egin zuten hainbat dantza ezberdin eskainiz.

Dantzak eta kantuak

Barixakuan ere egon zan koko-jantzia jarri zuenik; arratsaldeko 19.00etatik aurrera Kaldereroek urteroko bidea hartu eta Urkizu eta Untzaga artean euren abesti eta dantzak eskaini zituzten. Jendez lepo zegoen desfilea, baita bide guztia ere, kalderoeren zain.

Eta zapatuan hainbat ekitaldi izan ziren, herriko gazteenek ezin hobeto pasatzeko, tartean playback lehiaketa. Parte hartu zutenek gogor entsaiatutakoa erakutsi zuten. Giro ezin hobea izan zen egun guztietan Eibarren.



ZER NAHI DUZU IZAN NAGUSIA IZATEAN?



AINHOA PRELLEZO.

10 urte

Irakaslea izatea
gustatuko
litzaidake.

Uste dut umeei
irakastea
dibertigarria
dela, nahiz eta
batzuk nahiko
bihurriak diren.



JON ANDER RODRIGUEZ.

10 urte

Nagusia
naizenean
foballaria nahi
dut izan. Kirol
hori egitea
gustoko dut eta,
zaila dela jakin
badakit ere,
dibertigarria
izango litzateke.

Oindiño asko falta bada be, askok dake buruan nagusitzerakuan zer nahi daben izan: suhiltzailliak, poliziak, medikuak... Eta zuk zer diñozu?



ENEKO CAJAS.

10 urte

Foballaria;
gainera,
Bartzelonako
foballaria.
Foballean egitea
gustoko dut;
gainera, lan gutxi
egiten dute eta
diru asko irabazi.



NEREA SANTAMARIA.

10 urte

Ez dakit, ez dut
pentsatu
oraindik. Hala
ere, badago
gauza bat
gustoko dudana:
Haur
Hezkuntzako
irakasle izatea.

MULTIKIROLAK

L aukote xelebren honek ez du kirola oso gustoko, baina badakite ezinbestekoa dela kirolean aritzea. Orain errugbian dabilta, ez dute oso gustoko, baina ikasten ari dira. Foballa da euren kirol gustokoena.

-Zein kirol ari zarete egiten?

(Denok): Errugbia.

-Eta aurretik zein kirol egin duzue?

Jonathan: Ikasturte honetako multikirolak egiten hasi ginenean atletismoa, judoa eta aerobica egin genituen, besteak beste. Niri ez zitzaizkidan hainbeste

gustatu, baina beno. Ondoren, eskubaloian eta foballean ere aritu gara.

Sandra: Hori da,

errugbian egin baino lehen eskubaloia eta foballa egin dugu.

-Zein izan da egin duzuen kiroleatik gustokoena?

Jonathan: Foballa, zalantzarik gabe. Gainera, esan dezaket ni taldeko onenatarikoa naizela. Bi gara onenak. Horrela, oso ondo pasa-



tzen dut foballean egiten.

Sandra: Nik ere foballa dut gustokoena; gehien atsegin dudana kirola da hori.

-Zein ez zaizue asko gustatu?

Jonathan: Errugbia. Entrenatzailea argentinarra da eta ez zaio batzuetan zer esaten





Sandra Gulin, Pablo Idigoras, Juan Gisasola eta Jonathan Blanco: "KIROLA TALDEAN EGITEA HOBE DA"

duen ulertzen, hala ere, jatorra da. Baina ez dut oso gustoko kirol hori.

Pablo: Niri ez zaidana gustatzen entrenatzea da.

Juan: Niri ere ez, entrenatzea ez dut gustoko.

-Kirol indibidualak edo taldekoak dituzue nahiago?

Sandra: Hobeto da taldeka egitea. Horrela, batak bestea animatu dezake eta hori onurgarria da denontzat. Atletismoan eta horrelakoetan, bestalde, zuk galdu edo zuk irabazten duzu; dena zuk bakarrik egiten duzu.

Jonathan: Nik ere nahiago dut taldeka egi-

tea, taldean batak bestea lagundu dezakelako. **-Jendea animatuko zenuke multikiroletan apuntatzeko?**

Jonathan: Bai, noski. Osasunarentzako oso ona da kirola egitea. Gainera, nire gelakoei esango nieke apuntatzeko, gero taldeari lagundu diezaioten.

Sandra: Noski baietz. Gainera, neskak animatuko nituzke batez ere, gure gelan ia inor ez baitago izena emanda.





‘Martin’ telesaileko txikiena da Manex Olazagirre. Martintxo da bera eta hau da gaztetxo honek egiten duen lehen lana aktore bezala. Elena Irureta aktorea miresten du eta telesailean piska bat mimatzen dutela ere onartzen du.

- Noiz hasi zinen aktore lanetan?

2007ko uztailen.

- Nolako esperientzia ari da izaten?

Ona.

- Zer gustatzen zaizu gehien aktore lanaren gainean?

Nire gezurretako ama edukitzea.

- Zein aktore duzu gustokoen?

Elena Irureta.

- Txikiena izanda, besteek mimatu egiten zaituzte?

Bai, piska bat.

- Nola egiten duzu aldi bere-

an ikasi eta antzezteko?

Errez, udaran grabatzen dugulako eta, orduan, oportretan nago eskolan.

- Nolakoa da Martintxo?

Txikia eta zintzoa

- Zein da ikusi duzun azken filmea?

‘Piccolo and saxo’.

- Oporretara joateko leku bat?


Salou.

- Itsasoa ala mendia?

Mendia.

- Janari gustukoena?

Haragia patatekin.



- **Eta gutxien gustatzen zaizuna?**

Dena gustatzen zait.

- **Musika talde gustokoena?**

Pirritx eta Porrotx.

- **Irakurri duzun azken liburua?**

Orain hasi naiz irakurtzen ikasten eta ipuin bat dut gustukoen: 'Pinpilin'.

- **Zeini emango zenioke musu bat?**

Nere egitazko amatxori.

- **Eta zeini ostikoa?**

Gaiztoei.

- **Egindako bihurrikeria bat?**

Gauzak puskatu, baso bat...

- **Mutil izen bat?**

Aimar.

- **Eta neskarena?**

Irene.

- **Gustukoen duzun kolorea?**

Urdina.

- **Goxokirik goxoena?**

Natazko pastela.

- **Animali gustokoena?**

Hipopotamoa.

- **Marrazki bizidun gustokoena?**

'Martin mystery'.



KOLORETAKO LEPOKO ETA PULTSERA

**Pitxiloreak soinean eramatea gustoko dituzu?
Ba orain zuk nahi duzun kolore eta formakoak
erabili ahal izango dituzu!**



PAUSOAK:

- 1- Buztin edo antzerako pasta zati bat hartu eta urarekin buzti ezazu ore a egin malgutasuna lortu arte.
- 2- Moldeatu daitekeela uste duzunean 'txorizo' bat egin.
- 3- Egin duzun 'txorizoa' xafletan moztu ezazu. Hauek izango dira lepokoaren fitxak.
- 4- Hartu arkatza edo zotz bat eta moztu dituzun zatien erdialdean zulotxo bat egin.
- 5- Behin fitxei zulotxoak egin ostean, ipini itzazu bandeja batean eta labean sartu. Egosi itzazu piezak minutu batzuetan 200° C-ra.
- 6- Piezak egosita eta gogor daudenean kolorea emateko ordua heldu da.
- 7- Piezak nahi duzun ordenean kokoatu eta sartu haria erdialdeko zulotxotik. Ondoren, muturrak lotu itzazu.

AHOLKUAK:

- Hariaren luzeera eta piezen neurriaren arabera lepokoak edo pultserak egin ditzakezu.
- Margo bereziak erabil ditzakezu piezak labean sartu baino lehen.
- Piezak egiterako erabili duzun pastaren arabera egosteko denbora luzeagoa izango da edo ez (begira ezazu ontzian).
- Mozketen neurria nahi duzuna izango da eta, gainera, bolatxoak egin arte biribildu ditzakezu nahi izanez gero.



MATERIALA:

- Buztina edo antzerako pastak.
- Ura.
- Haria.
- Koloretako tenperak.
- Arkatza edo zotza.



SORGINKERIEN LIBURUA

KATTALIN ASTE SANTUKO OPORRAK PASATZEN ARI DA BERE FAMILIAREKIN. NON ETA 'JOANABELTZENEAN', MENDI ARTEAN DAGOEN BASERRI ZAHAR-ZAHAR BATEAN. AITA-AMAK POZIK DAUDE TOKI HORRETAN, BAITA ANAIA GAZTEGEOA ERE. ALDIZ, KATALINEK BERE OPORRETARAKO AMESTEN ZUEN TOKIAREKIN IKUSTEKO GUTXI DU MENDIZULO HORREK. ASPERTZERA ETSIA, HIRU URTE LEHENAGOKO ISTORIO BATEK ETA LIBURU BATEN AGERPENAK USTE EZ BEZALAKO OPORRAK EKARRIKO DIZKIOTE.



JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIAN

BASOAREN BIHOTZEAN

RAKEL 9 URTEKO NESKA BAT DA. IKASTOLAKOEKIN TXANGO BATERA JOAN DA. ETXERA BUELTATZERAKOAN MOTXILAN DERDRIN DEITUTAKO IRATXO BAT SARTU DELA KONTURATU DA. IRATXOAK BERE ETXEAN GERATZEKO BAIMENA ESKATU DIO; RAKELEK BAIETZ ESAN DIO. OSO LAGUNAK EGIN DIRA. RAKELEK DERDRINI KLASEKO MUTIKO BATEK, KARLOSEK, EZ DUELA PAKEAN UZTEN KONTATU DIO. EGUN BATEAN RAKELEK DERDRIN ESKOLARA ERAMAN DU ETA KARLOSI MEREZITAKOA EMAN DIO.



NIKOLAS TXIKIREN HISTORIA EZAGUNAK 1

ORAIN ARTE LIBURUETAN ARGITARATU EZ DIREN NIKOLAS TXIKIREN LAUROGEI ABENTURA HIRU LIBURUTAN BANATU DIRA ETA HAU DA LEHENGOA. BERTAN, HOGEI ETA ZORTZI ISTORIO KONTATZEN DIRA. GOSCINNY ETA SEMPÉ UMORISTA BIKAINEK ASMATU ETA FRANTSES LITERATURAKO MAISU-LAN BILAKATU DEN ESKOLA-UME EZAGUN HONEN SAGAREN LUZAGARRI DIRA.





SORGIN BAT IKARAGARRI POLITA

EDERNINI SORGINTXOA EGUNA BEZAIN EDERRA JAIO ZEN. BAINA HORI SORGIN BATI GERTA DAKIOKEEN EZBEHARRIK IKARAGARRIENA DA. ZIPOTZ ANDEREÑOAK BEGITAN DAUKA ETA ZIGORTU EGITEN DU, BESTE SORGINEK EZ DIETE UZTEN BEREN UMEEI EDERNINIREKIN JOSTATZEN, ERAGOZPEN GUZTIAK GAINDITUZ, ZORIONTSU IZATEA LORTUKO DU. CHRISTOPHE MIRACOURT FRANTSESA MAISUA DA ETA ISTORIO POLITAK ASMATZEN DITU IKASLEEI ETA BI SEME-ALABEI KONTATZEKO.



EGUNEROKO ERRONDA

EIBARKO LIBURUDENDETAN SALGAI

BAZEN BEHIN ZELOBERT IZENEKO HIRIA. ARRAZA GUZTITAKO ANIMALIAK BIZI ZIREN HAN, EZ UGAZABARIK, EZ LEGERIK EZ ZUTELA, BAINA... EZ, HAU EZ DA IPUIN ARROSA BAT. HALAKO LEKU BATEAN ERE AURKI DAITEZKE POLITIKARAKO HANDINAHIA, SALDUKERIA, NAGUSIEN GEHIEGIKERIAK, BELDURRAREN INDARRA. ZORIONEZ, INJUSTIZIAK, BATZUETAN, ADOREA ATERATZEKO BALIO IZATEN DU.



IRAKASLE ALU BAT

EZ ZAIT SEKULA AHAZTUKO IRAKASLE ALU HURA. ALUA ZEN... GEHIEGIKERIAN ARI NAIZELA PENTSA LEZAKE BATEN BATEK, PASATU EGIN NAIZELA. HALA USTE DUENAK EZ ZUEN TXINTXETA EZAGUTU, EZ DAKI OSO ONDO NOLAKOA ZEN ALU HURA. AZTERKETEN GREBA, PANDA ETA TXUSMIRI EGINDAKOA, KOTXEARENA, HAREN ONDORENGOAK... GEHIEGI ARI NAIZ AURRERATZEN ORDEA. HOBE IZANGO DUT, GAUZAK IZAN ZIREN BEZALA KONTATZEKOTAN, PAUSOZ PAUSO IBILTZEA...

BERTSOTAN

**BERTSOZALE ELKARTEAREKIN ELKARLANEAN,
BERTSOTAN ATALEAN BERTSOGINTZA LANDUKO
DUGU ZUEN LAGUNTZAREKIN.**


**LAN ETA JOKOAK ERABILITA, BERTSOAK,
KOPLAK ETA ABAR NOLA EGITEN DIREN
IKASTEKO AUKERA IZANGO DUZUE...**

**HILABETE HONETAN, JOKO BEREZIA PRESTATU
DUGU ZUENDAKO:**

**GAURKOAN, LOTU AZPIKO ARGAZKIAK
ESKUMAKO ORRIALDEAN DITUZUEN KOPLEKIN.
ETA HASI AURRETIK ABESTU BERTSO HAU:**

Umeen aldizkari
badugu Txikitto,
ipuin,
txiste, marrazki
eta hainbat bertso.
Irakurle gehienak
heldu ta umetxo,
atalak irakurtzen
guk barre askotxo.







LOTU KOPLAK ARGAZKIEKIN



LERRO ERRIMADUNAK

- a) Eibarren ospetsua
gure gitarrista,
liburuak idazten
orain da artista.
- b) Pelotari bikaina
inguruan dugu,
Titinen bikotea
Plaentxin daukagu.
- c) Athletiz-en jokatzen du
berak futbolean,
gol asko sartzen ditu
faltak botatzean.
- d) Munduko txapelduna
geratu zen bera,
eskalatzaile ona
ta eibartarra da.
- e) Futbolean bikaina
ta aurrelaria,
Athletikekoa ta
foballari handia.
- f) Eibarren ospetsua
txirrindularia,
emakume bikaina
ta kirolaria.
- g) Nesken atezain bat da
Athletikekoa,
oso ona da eta
gure gustokoa.

G A T A 2 K R A

<p>Egun batan bi lagunek gaitakea dute. Egun batan...</p> 		<p>Gero Mikeler dena...</p> 
		

Marina Estero 4. maila